



# 1- IKUSI AURRETIK

## 1.1 Gaizki atera zaizkigun gauzak


**Inoiz sentitu zara gaizki jende aurrean zerbait egitean? Komentatu lagunarekin.**

**Egoerak**





Eskolan

**Gidabaimena ateratzen**



**Lan-elkarrizketa batean**



Jende aurrean hitz egiten      Casting batean  
Hizkuntza bat ikasten...



## Sentimenduak

Oso gaizki sentitu nintzen  
Txarto pasatu nuen  
Burua hutsik gelditu zitzaidan  
Oso urduri jarri nintzen  
Oso gaizki egin nuen  
Lotsa-lotsa eginda egon nintzen

## Arrazoiak

Lan gutxi egitea	Ez ulertzea
Suerte txarra izatea	Laguntzarik ez izatea
Urduri jartzea	Arretarik ez jartzea
Berandu iristea	
Esperientzia falta izatea	

- Behin, 18 urterekin, oso gaizki egin nuen azterketa bat.
- Zergatik?
- Burua txuri gelditu zitzaidalako.
- Ba ni behin, unibertsitatean, eta oso gaizki pasatu nuen.
- Zer gertatu zitzaizun ba?
- Jende aurrean aurkezpen bat egin behar nuen, eta, bat-batean, hitzik gabe gelditu nintzen.

**Komentatu talde osoaren aurrean pasadizo bat.**

## 1.2 Zergatik uste duzu?

**2. Ikusiko duzun istorio honetan, Josuri lan bat gaizki atera zaio unibertsitatean. Zergatik uste duzu izan dela? Komentatu lagun batekin.**

- Irakaslea oso zorrotza delako.
- Ondo prestatu ez duelako.
- Oso urduri jarri delako.

## 2- IKUSI BITARTEAN

### 2.1 Egia ala gezurra?

**Ikusi bideoa eta esan ondoko esaldiak egia ala gezurra diren.**

	Egia	Gezurra
1. Josu ez dago gustura egin duen lanarekin.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Antxoeren komunikazio-kanpaina egin behar zuen	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Josuk lehenago ez zuen inoiz jende aurrean hitz egin.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Josuk gustura hartu ditu Amaiaren mimoak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Josuk ez du gustuko antxoak jatea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Josuk esaten dio Amaiari ez diola asko lagundu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Amaia prest dago Josuren amatxo izateko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



## 3- IKUSI ONDOREN

### 3.1 Elkarrizketa osatzen

**Amaiak Josuri azaltzen dio zergatik egin duen gaizki aurkezpena. Osatu elkarrizketa-zati hori eta adostu erantzunak lagunarekin.**

lagundu ez didazulako / lotan egoten zarelako / ez duzulako prestatu / tabernan gelditzen zarelako

AMAIA.— Gainera, zuri antxoak izugarri gustatzen zaizkizu.

JOSU.— Bai, baina jateko; nik ez dut haietaz hitz egin nahi.

AMAIA.— Bueno Josu, nahikoa da. Aurkezpena ez duzu ondo egin (1) ....., liburutegian (2) ..... eta klasera joan ordez, (3) .....

JOSU.— Eta zuk (4) ..... !

AMAIA.— Horixe bakarri behar genuen. Errua nirea izatea!

### 3.2 Jarri arretea hizkuntzan

#### **Arrazoiak ematen**

Zerbaiti buruz arrazoiak edo azalpenak emateko, kausazko esaldiak erabiltzen ditugu: ...-(e)lako / ...eta / bait-...

- Azterketa gaizki egin nuen, ondo prestatu ez nuelako.
- Gaur ez gara etxetik aterako, eguraldi txarra egiten du eta.
- Zineman lo geratu nintzen, filma aspergarria baitzen.

- Haserre nago zurekin: lehen ez didazu kasurik egin.
- Ez zaitut ikusi eta.

### 3.3 Ez dut ondo egin, zuk lagundu ez didazulako, zer pentsatuko du?



Osatu eskuineko zutabearen kausazko esaldiak (-elako partikula erabiliz), eta lotu ezkerreko esaldiekin.

1- Ez duzu azterketa gainditu,	<i>liburutegian lotan (egon) egoten zarelako (0)</i>
2- Ez duzu autobusa harrapatu	oso garestia (izan) ..... ( )
3- Jendaurrean gaizki pasatzen dut	euririk (egin ez) ..... ( )
4- Dibortziatu egin ziren	hemen lanik (aurkitu ez), ..... ( )
5- Egia da	etxetik berandu (atera) ..... ( )
6- Betaurrekoak erosi ditu	urduri (jarri) jartzen naizelako..... ( )
7- Urtegiak lehor daude	ondo (ikusi ez) ..... ( )
8- Ez nuen erosi	gaizki (moldatu) ..... ( )
9- Atzerrira joan zen	nik (esan) ..... ( )
10- Oso gustura dago	sari bat (eman) ..... ( )

### 3.4 Zure aurkezpena



Taldearen aurrean aurkezpen labur bat egin behar duzu. Gustuko duzun zerbait proposatu: film, liburu, disko, toki bat...

Nire gustuko idazle baten liburu bat komentatu nahi dizuet. Idazlea García Marquez da eta liburua “El amor en tiempos de cólera”. Liburu hori gomendatu nahi dizuet oso entretenigarria delako, ez zarete aspertuko, seguru.

**Aurkezpenak egin ondoren, elkartu talde txikitik eta komentatu inpresioak: egin zure balorazioa eta, ondoren, entzun zure taldeko lagunena. Bat zatozte?**

- Hasieran oso urduri egon naiz, baina azkenerako lasaitu naiz eta uste dut esan nahi nuena azaldu dudala.
- Aurkezpena oso interesgarria izan da, originala izan delako.
- Niri luzea egin zait, baina ondo azaldu duzu.